

Igartubeiti baserria

Urriko bigarren astea n, 1 DBH ko ikasleak Igartubeiti baserria bisitatzera joan ginen. Hara joateko, ikastolan 9etan autobusa hartu genuen eta gutxi gorabehera 10etan Igartubeitira iritsi ginen. Han, lehenik hamaiketakoa egin genuen eta ondoren, baserria bisitatzera abiatu ginen.

Bertako gidariak, Igartubeiti baserria euskal baserrien Urrezko Aroa hobekien islatzen zuena zela agertu zigun. Baserria XVII. mendearen hasieran (1630) eraberritua eta zabaldua izan zen, bizimodu eta lan mota berrietara egokitzeko. Aldi berean, Euskal Herriko baserri interesgarrienetako bat dela esan zigun, jatorrizko zurezko egitura oso ongi kontserbaturik duelako eta baita sagardorako dolarea ere. Hau guztia kontuan harturik argi erakusten ditu garai hartako balore kultural historiko, antropologiko, arkitoniko eta sinbolikoak eraikuntza honek.

Hori esan ondoren, logelak, ukuilua, sukaldea eta ganbara ikusi genituen. Logeletako, paretak zurezkoak ziren eta baserrian hiru logela egokitu ziren. Ukuiluan (goldeak, gurdia, etab-ak) gordetzen ziren eta orain, sagardoa kontserbatzeko ere erabiltzen da. Sukaldeak XVI. mendean hartzen zuen leku bera hartzen du gaur egun eta elikagaiak prestatzeko su nagusia ere mantentzen da. Ganbaran, elikagaiak bildu eta sagardoa egiten da. Ganbara erdian, baserriko elementurik garrantzitsuen dago, dolarea. Bisitaldian dolarea martxan jarri eta ateratako zukua dastatzeko eman ziguten.

Azkenik, 15:30ean autobusa hartu genuen eta 16:30erako Txingudi Ikastolara iritsi ginen. Irteera oso interesgarria izan zen eta oso ondo pasa genuen !!

OIHANE GARMENDIA ETA IRAIA OSKILA
(1DBHko ikasle)



Igartubeiti baserria (Ezkio-Itsaso, Gipuzkoa)



XVI.mendeko dolarea